itzulpena: Koldo Izagirre

Rosalia de Castro

Munduko
Poesia
Kaierak

Rosalia de Castro

itzulpena: Koldo Izagirre

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.eus/ebook

© Rosalia de Castro
© itzulpenarena: Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa

2017ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Rosalia de Castro figura funtsezkoa dugu galiziar poesiaren historian; hain da horrela, ezen haren *Cantares Gallegos* (*Eresi galegoak*) argitarapena (1863) jotzen da Rexurdimento (Pizkundea) mugimenduaren abiapuntutzat. Galiziar pizkundea Kataluniakoren paraleloan garatu zen gutxi-asko, abertzaletasunaren piztearekin loturik politikoki, eta poesiari dagokionez, lore jokoen antolaketek bultzaturik. Euskal pizkundea apur bat geroago loratu zen, XX. mendeko hastapenetan, eta denek dituzte neurri batean antzeko ezaugarri orokorrak. Hala ere, Galiziako kasuan, pizkundea emakumezko idazle batek abiatu izana gauza ezohikoa da, gainontzeko mugimenduetan gizonezkoak izan baitziren "jaun eta jabe".

Gainera, *Cantares Gallegos* beste ikuspuntu askorengatik da interesgarri. Poema gehienak eresi edo esaera zaharren glosa gisa osatuak dira, eta honenbestez, sorkuntza puruaren ideia erromantikoa ezbaian jartzen dute. Horrekin batera, emakumezkoa sortzaile oso gisa aintzat hartzeko zailtasunak iradokitzen dituzte halaber glosok; ez alferrik, Castrok Antonio de Truebaren *Libro de los cantares* (*Eresien liburua*) oinarritu zela aitortu zuen hitzaurrean. Edu-

kiari dagokionez, baina, erromantizismotik edaten du hein batean behintzat. Haren maitasunezko poemetan agerikoa da hori, *Aita San Antonio* poema durduzagarrian esaterako, non maitasun erromantikoan bete-betean txertatutako poema dugun, gaur egundik eredu horren makurkeriaren kontzientzia hartzeko irakurtzen ahal duguna. Aberri eriari buruzko poemek ere beste sail garrantzitsu bat osatzen dute. Deigarria da nola erabiltzen duen ortuaren metafora aberria irudikatzeko, hain justu Xabier Lizardik hamarkada batzuk geroago egingo zuen bezalaxe *Asaba zaharren baratza* poema sonatuan. Mugimendu erromantikoak bultzaturikoari jarraiki ere, herri tradiziotik ekarritako formak erabili zituen Castrok, bereziki kopla: *Kanta ezazu*; *Agur ibai, agur iturri*.

Follas novas (*Hosto berriak*) izan zen galegoz idatzi zuen bigarren eta azken poema liburua. 1880an emana argitara, Castrok berak aurrekoaren segidatzat jo bazuen ere, kritikariek bien arteko aldeak azpimarratu izan dituzte. Landutako gaiak antzekoak dira, baina *Follas novas*-en presentzia bereziki nabarmena du emigrazioaren arazoak. Ezagun denez, galego saldoak (milioi erdia gutxi gorabehera 1860tik 1887ra) emigratu zuen Ameriketara garai hartan, eta

auziari idatziriko poemak ditugu *Habanarantz!* eta *Lur gurea!* besteak beste. Kultura portugaldar eta galiziarrean *saudade* hitzarekin ezaguna den melankolia sentimendu moduko hori adierazten dute poema horiek nolabait; utzitako bizitza eta aberriak eragindako mina. Sentimendu hori ere kutsu existentzialagoa duten poemetara igarotzen da, sinbolisten *ennui* famaturantz gerturatuz hainbat lerrotan: “bizitza hau zaigunean / neke eta etsimen”. Ildo horretako *Gaur edo bihar* poema ere aski nabarmentzekoa da, (norbere) heriotzari idatzitako poema aparta eta zirraragarria.

Rosalia de Castroren lanak utzi izan du arrastorik Galiziatik kanpo ere, esaterako Federico Garcia Lorcarengan. *Canzón de cuna pra Rosalía Castro, morta* (*Seaska kanta Rosalia Castrorentzat, hilik dela*) poema idatzi zuen galegoz Castroren hilobia bisitatu ostean. Haren poemak ere kantari ugarik musikatu badituzte ere, Amancio Pradak eginiko bertsioak dira ezagunenak, arestian aipatutako *Adios rios, adios fontes* esaterako.

Honakoa duzu galegotik itzulitako lehen kaiera, ez nolanahiko poetari eskainia gainera; gaur egun ere

poesia galegoz idazten jarraitzen bada, neurri batean bederen Rosalia de Castrori esker baita.

BEÑAT SARASOLA

[kanta ezazu]

Kanta ezazu neskato
irrintzi batean
gaztaina erreak dauzkat
zuretzat labean

I

Kanta ezazu neskato
gaitaren auhenaz
kanta ezazu bestela
hilko nauzu penaz

Kanta ezazu neskato
iturri ondoan
zuretzat dauzkat gozo
opilak zorroan

Kanta ezazu neskato
konpas baratzean
zuretzat esne zopak
nire laratzean

Nik emango dizkizut
sagar egosiak
nik emango dizkizut
torrada eztiak

gatz-ozpinez onduta
patata erreak:
intxaurrak dirudite
goxo xelebreak

Guk biok gozatzeko
zer erromeria
kanpotik festa eta
barrutik feria

Kanta ezazu behingoz
neska deabrua
gona emango dizut
eta kapelua

Kanta ezazu behingoz
galegoz faborez
gona emango dizut
parpaila dotorez

Gaitaren hotsa eta
panderoarena
kanta ezazu arren
ai nire morena

Gaitaren hotsa eta
atabalarena
kanta ezazu arren
deabru alaena

II

Niri hala eskatu
itsaso aurrean
uhin handiak urrun
txikiak hurrean

Niri hala eskatu
erreka aldean
ura narrasti leun
belarren artean

Oilarrak kukurruku
kilkerra kantari
haizea hostoetan
putz egiten ari

Larreak belarretan
iturriak urtsu
mahasti-sagastietan
hezearen kutsu

Gaita guztiak joka
joka panderoak
mutilek dantzarako
neskato xaloak

Kofia zuri-zuri
parpailez mantua
gure neskek jantzian
zer pulamentua

Zer azpiko politak
mantal dotoreak
zer gerruntze estuak
gorri koloreak

Kolore bizi hauek
begi zoragarri
denen artean dute
eguzkia ekarri

Mendi eta ibarretan
dantzan ikusiak
lore zirela uste
zuen eguzkiak

III

Leku ederragorik
munduan ez dago
ikusten dudan hura
ni sortua baino

Leku ederragorik
munduan ez dago
Galizian daukagun
polit hura baino!

Galizia ederra
zu beti loretan
parerik ez daukazu
beti aparretan

Uhinek dute ematen
aparra perletan
iturriak gainezka
loreak erletan

Zure ibar sakonak
hain berde hain heze
minez dagoenari
zaizkio atseden

Hantxe baitute hartzen
aingeruek loa
iduriz hegaztiak
iduriz lainoa

IV

Itsaso bazterrean
zidaten eskatu
Galizia zuretzat
egin nezan kantu

Kanta dezadan beraz
hizkuntza galegoz
triste kontsolagarri
tristerik balego

Mainatsu, ezti, leun
onbera, kexati
zoratzen duzu barrez
hunkitzen negarti

Bakardade mingarri
hasperen amesti
hau bezain denik ez da
kanturako ezti

Arratseko lilurak
gaueko marmarra
kantatuko dizkizut
Galizia bakarra

Hartua naiz agindu
hartua enkargu
mintzo naizen hizkuntzan
egin dezadan kantu

Hartua naiz agindu
hartua enkargu
erne, neska gazteok
kantuan naiz sartu

Alaitasun gozoan
astiro konpasa
itsaso bazterrean
olatuen dantza

Apal eskatzen diot
zeruko Jaunari
koplok izan daitezen
penen aringarri

Gauez eta egunez
goizez, arratsaldez
kantari ibiliko naiz
mendiz eta ibarrez

Dei egiten didanak
behartzen nauenez
kantatu egingo diot
egunez eta gauez

Kontsuelo handi bat
ahal baneza ekar
algara bihurturik
kexa eta negar

Zatozte nire bila
atso eta mutiko
gari, arto artean
nauzue ikusiko

Aberatsarenean
pobrearenean
kantuok kantagarri
baitira denean

Denean, Birjinari
laguntza eskean
hark kontsola zaitzaten
zuen oinazean

Zuen atsekabean
zuen saminean
sartua naiz kantuan...
Jaunaren oinean

[igandez joan nintzen]

Igandez joan nintzen
igande arratsaldez,
eguzkia apalik pinudien ostean
aingeru iduriko hodei zuritan,
tximeletak hegal dardarika
higidura leun eta geldoan,
laino lausoak zeharkatuz,
urrezko eta harribitxizko
altxor aberatsak
printzetan apurtzen dituzten
mundu berezietan zehar

Mendiz joan nintzen
mendiz eta ibarrez,
lautadez eta bakardadez:
igaro nituen errekak
igaro nituen itsasoak
oinak lehor eta nekatu gabe

Heldu zen gaua, gau dirdiratsua
jaspez eginiko ilargiduna,

eta harekin joan nintzen
bidean aurrera,
izartxoak nituela gidari
berek bestek ez dakiten
bide hartatik

Gero egunsentia
arrosek eginiko aurpegiz
heldu zen argi egitera
eta orduan ikusi nuen
zumar eta pinu orrien artetik
gerizpean zegoen etxetxo zuri bat
usategiduna
usotxoek egiteko sartu-irtena

Bertan entzuten ziren kantu eztiak,
bertan zalapartan mutil galaiak
inongo neskatoekin.
Dena da olgeta, dena da poz,
harria jo eta jo ari da
eho eta eho, jira eta jira
konpasa ematen gustu gozoz

Ez dago baztertxo atseginagorik

gaztainadiko errota hura baino,
han dira neskatoak, han dira mutilak
borrokan dakitenak eztiro.
Han iskanbilan nekatu arte
gazte-zaharrak, txiki-handiak,
eta gura ez duten arren hara noan
etxean inork ez zekiela
lagunaren errotara
haize baten nintzen joan
airez aire eroana

[kanpai herria Bastavales]

Kanpai herria Bastavales
joka entzuten ditudanean
hil egiten naiz bakardadez

I

Entzuten zaitudalarik
kanpai txiki, kanpaitxo
negarra datorkit nahi gabe

Urrun entzuten zaitudalarik
minetan dauzkat erraiak
ari ote zaren nire galde

Eri naiz minezko zauriz
bizi osoa neukana
gaur naiz erdiaren jabe

Erdia didate utzi
handik ekarri nautenek
handik nautenek lekutu

Ai! ez maitasun zoroek
Ai! ez zoro maitasunek
naute handik lapurtu

Maitasunak joan dira
heldu dira bakardadeak...
penaz naute uzkurtu

II

Goizean goizik
muinoetan gora noa
arinik, arineketan

Ahuntza bezain arin
entzun ahal izateko
lehena ezkiletan

Egunsentiko lehena
haizeak ekarria
ni kontsola nadin

Malkotan ikus ez nazan
hegaletan dakarkit
jostari eta kexati

Kexati eta dardaran
basartean barrena
zuhaiztian barrena

Eta larrean barrena
ibar leunean barrena
ikotika eta ikotika

III

Astiro, astiro
isilik noa kalean
Bastavaleseko bidean

Nire poza den bidean
harri gainean jesarri
eguzkia gorde artean

eta jesarririk begira
ageri zait ilargia
eguzkia gordean

Hau etzan, bestea gorde
ez dakigula nora
ilargia bere bidean

Norako hain bakarti
hari begira gauden tristeoi
hitza eta entzuna uko

Hitz egingo, entzungo baligu
nik zenbat esateko
nik zenbat kontatuko!

IV

Izar orok bere pitxia
hodei orok luma zuria
ilargia aitzina doa triste

aitzina doa argituz
ibar, larre, mendi, ibaiak
egunaren murriztez

egunaren murriztez ilun
gaua gainbehera, gainbehera
mendietako basoetan

basoetan eta hostoetan
iturritxoak edonon
adarren gerizpean

Gerizpean kantari
txoriñoak txioka
egunsentian itzarri

arratsean lotaratu
ilunpean azal daitezen
kilkerrak kantari

V

Haizea lasterka, ibaia joanean
hodeiak lasterka, hodeiak lasterka
nire etxerako bidez

Nire etxea, nire babesa,
badoaz denak, ni hementxe
lagunik ez, maiterik ez

Ni hementxe hasperenka
etxeetako keari begira
bizi naizen haren galdez

.....

Badator gaua... eguna itzali da
Ave Mariaren doinuan
ezkilak urrun joka

joka otoitz egin dezadan:
ito bainaute negarrek
ez dut nik otoitzik egingo
nitaz egin dezala bestek

Kanpai herria Bastavales
joka entzuten ditudanean
hil egiten naiz bakardadez

[Aita San Antonio]

Aita San Antonio
itotzen banau be
emostazu senar bat
larrutzen banau be

Aita San Antonio
behar dut laguna
berdin zait bada be
artotxo garauna
   Lagun bat, Jainkoarren
izanagatik koju
izanagatik herren

Gizonik gabe andra...
santu jauna, zer da!
Arima bako gorputz
soinu bako festa
   jiran dabilen makil
inon eta inoiz
ezin egon trankil

Gizontxo bategaz da,
Ai Karmengo Ama!
bestelako mundu bat
gozamen galanta
   Okerra zein herrena
gizona izaten da
partxerik ederrena

Nik gura nukeen hori
zelako plazera
ikusita ipintzen zait
bero bat epela
   Urinezko besoak
esanak dultziak
eta guzurrezkoak

Hargatik naiz mintsu
gauez eta egunez
akordua egiten dut
haren begi ilunez
   Baina haren esanez
amodiotan bai
ezkontzekotan ez

Egizu, San Antonio
datorren nigana
niregaz ezkontzeko
soltera naizena
   Dotean badakartzat
zurezko lau zali
burdinazkoa bat

Nebatxoa badaukat
haginak agertzen
eta behi zahartxo bat
errapetik zeken...
   Ai, santu agurgarria
egizu jazo dadin
nik dudan guraria!

Aita San Antonio
itotzen banau be
emostazu senar bat
larrutzen banau be
  Okerra zein herrena
gizona izaten da
partxerik ederrena

[agur ibai, agur iturri]

Agur ibai, agur iturri
agur mendi-errekatxo
agur nire begion bista
itzuliko naiz akaso

Lur nirea, lur nirea
hazi naizen lur zoko
hain maite zaitudan ortu
landatu nuen pikondo

Larre, ibai, zuhaizti
haizepeko pinudi
nire pozaren etxe
txoriño txiokari

Gaztainadiko errota
ilargi beteko gau
bertako eliza eta
kanpai ozenkari hau

Maiteari emandako
hurrizti hartako hur
arto arteko bidexka
agur, betirako agur!

Agur loria, agur poza
banoa maite auzotik
banoa nonbait mundura
zuek ezin kenduz ahotik!

Arrotzak lagun ordain
itsasoa ibar ordain
maite dudana utzita...
Zuek hemen nire zain!

Txiroa izaki, orban latza,
ene lurra ez dut ene.
Zoritxarrak sortuari
maileguan uzten diote
hartzen duen xenda ere

Utzi behar zaituztet ba
hain maite zaitudan ortu

landatu nuen zuhaitz
nire bordako iturri
nire laratzeko su

Banoa, agur, agur
aita lurpean den
hilerriko belartxo
belartxo musukatu
hazi zintuen gozo lur

Agur, Jasokundeko Ama
serafinak bezain zuri
bihotzean zaramatzat:
Jasokundeko Ama neurea
erregu nitaz Jainkoari

Urrun, Pomar aldetik
urrun kanpaiak oso.
Niretzat, ai koitadua!
ez dute inoiz joko

Sumatzen dira urrun, urrunago...
jo bakoitza zauri makur.
Bakarrik noa, arrimurik ez...

Lur nirea, agur, agur!

Agur zuri ere, maiteño
agur betirako agian!
Negarrez diotsut agur
itsasoaren hegian

Ez ni ahaztu hiltzen, maite,
banaiz bakardadean
hainbat legoa itsasoz...
Etxe neurea! Sutondo neurea!

[ez dizut ezer esango baina... arraioa!]

I

Horren gauza bitxiak
gertatzen dira gaur bizitzan
halako gauza arraroak ikusten
amarru mundu honetan
hainbeste mirari zahar,
hainbeste ikasteko berri
eta entsalada izeneko
hainbeste berakatz tortilla...
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Soineko politeko neska
neska zapata oneko
hainbeste arropa duzuna
hainbeste arropa gordea
olgeta handiko neska
neska pertxenta askoa

eta pobrea, bekatubeltza!
armiarma bezain pobrea...
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Ikusten zaitut artasorotan
ikusten zaitut orbel artean
noiz pinudi sarrian
noiz kanaberetan arin doan
ibaiaren bazter barean
eta zin egiten didazu
zaudela bakarrik
inor ez duzula aldamenean...
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Ezkondu, ezkondutxo
solas ederrekoa
ezkongabeekin dantzan
erromeria eta mandiotan
ezpainetan irria, begietan berba
horiekin mintzo badirudi
egin behar dutela jauzi...
ez dizut ezer esango, baina...

arraioa!

Begira jartzen banatzaizu
hain garbi eta hain orraztua
mutilekin borrokan
zutaz asetzen diren artean
eta gero zin egiten duzu
orbanik ez duen andra zarela
eta gainerakoak ez direla ezer
zu zarenaren aldean
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Eta zu, ilehori horitxoa
apala eta zintzoa
ezti duzula berba
ezti duzula pausoa
begiak gizonen oinetara
aurpegia ez ikustearren
eta badute aipu maitasuna
ez entzuna egiten duzuna...
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Bazoaz goizean goizik
beatekin mezetara,
gero... (zergatik, zeuk dakizu)
berbetak dituzu luze
eta gurdibidean
parraren ondoan, hortxe
ez dakit zer jenderekin
zaren lotzen edo ez lotzen
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Eta zu, mutil segaila
hain hiztun eztitsu
hain dotore txapelaz
hain aberatsa azpantarrez
hain fina oinetakoz
nola eskuz aitonseme,
esaten baldin badidazu
soroko lanean zarela laketzen
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Zu, amodio kontuak
ongi hitz egindako ahoan

neskekiko borrokan
beste inor ez bezalakoa
zu bai ardoa edaten
hitzik ezin egin arteraino,
baina zure izerdiarekin
lur zekena bustitzen...
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Baina hainbeste gauza
ikusten dut amarru huts
hainbeste eguzki hodei artean,
iturriño gardenaren antza
hartu nahi izaten duen
uhertutako hainbeste ur...
non denbora ez galtzeagatik
ezpalik irabazi gabe
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

II

Horren gauza bitxiak
gertatzen dira gaur bizitzan
halako gauza arraroak ikusten
amarru mundu honetan
hainbeste mirari zahar
hainbeste ikasteko berri
eta entsalada izeneko
hainbeste berakatz tortilla...
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Zer edo zer ikasiko nuela
koitadu ez bestea,
pentsatu nuen eskarmentuan
ez ninduela inork irabaziko
kopetan bai baitut zimurrik
iletan bai baitut zuririk
gaur egun mutilek ordea
titia hartzen dutenetik bertatik...
non ez dizudan ezer esango, baina...
arraioa!

Orain ez duzu aski, Farruco
bizimodua egitea
urte burutsuen lagun
ez soilduaren eskarmentuan
ez bizitzea erne begia
zuhurtziak eskatu bezala,
izan ere gutxien uste den hartan
egon ohi baita lo erbia
non ez dizudan ezer esango, baina...
arraioa!

Orain gaua ilun dugula
gau argian gaudela diote
orain itsasoa bare bada
ekaitza dugula esaten dizute
eta hainbeste zaituzte nahasten
hainbeste zaituzte koldartzen
non Jainkoaren legean
hitz egin nahi izanda ere...
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Bazina frantsesa, lagun xaharra
bazina Australia urrunekoa

bazina eguzki horretatik jaitsia
edo izar zurbil horietatik
galdetuko lizukete agian
seriotasun zurrunean,
eta zuk, harri eginda
erantzungo zenuke ahapetik:
ez dizut ezer esango, baina…
arraioa!

Horregatik, lagun xaharra
saiatzen ez bazara
ikatzaren hautsarekin ere
aldera litekeen arren
ur gardena bezalakoa omen den
garaiotako zientzia ikasten,
horixe baita zientzia hain zuzen,
eta ezerk alde asko edukitzea
ez dizut ezer esango, baina…
arraioa!

Ikusiko duzu tutik ez ulertuagatik
zeinen ongi diren konpontzen
lotsabakoak eta prestuak
beatak eta salduak

ikusiko duzu nola diren batzen
ikusiko duzu nola egiten duten tratua
zu marmarrean ari zarela
kana eta erdiko mihiaz
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Ikusiko duzu gerezi kolorean
aurrez esmeralda izana,
eta odol urdin jario ziren
ezin urdinagoko haiek,
gaur egungo usantzan,
odola gorri jario
eta hau dena halako kopetarekin
eta halako harrokerian
non ez dizudan ezer esango, baina...
arraioa!

Ikusiko duzu nolako itzulipurdiak
zelako kontradantza landuak
zelako gaitak bere ttunttunarekin
zelako txirulak bere harparekin
zelako parpaila zuridunak
lepatrapu gorridunak

berbetan eta berbetan
halako zalaparta hanpatuan
non ez dizudan ezer esango, baina...
arraioa!

Zuk usteko duzu hau dena
inauteria itxurako bat dugula
hemen jaka dela eskas
eta lebita soberan
han erbi jana dutela
kalabazaren ordez
eta txirulak ari direla
kanpaiek jo behar luketenean
ez dizut ezer esango, baina...
arraioa!

Ikas ezazu, lagun xaharra
halako nahaspila aberatsa
zentzu onez erakusten digun
zientzia maitagarria
jakinean egon nahi baduzu
halako gauza berezietan
izan ere, hainbeste berritasun artean
gure behialako maneratxoak...

ez dizut ezer esango, baina...

arraioa!

[Gaztelako gaztelarrok]

Ez txarto hartu galegoak
Gaztelako gaztelarrok,
joan arrosen pare doaz
etorri beltzen pare datoz

Zihoala irriz zihoan
zetorrela hilik zetorren
ene begietako argia
ene maiteño bihotzekoa

Elurra baino zuriago zena
eztitasunez betea zen hura
ene biziaren jabe zen hura
gabe bizi nahi ezik naizena

Gaztelara ogi bila joanda
zakurbelarra zioten eman
hazkurri nahigabeak zeuzkan
edari behazuna zeukan

Samina baino ez zion eman
bizitzaren kolkoak.
Gaztelarrok, gaztelarrok,
burdin-bihotzekoak!

Jainkoari diot eskatzen
gaztelar gorrotagarriok,
lehenago hil daitezen galegoak
zuengana hazkurri eske baino

Halako bihotz gaiztokoak
mortuko seme sikuak,
ogi garratza irabazi eta
pozoitan ematen bildua

Gaztelako gaztelarrok
bihotzak altzairuzko
haitzak bezain gogor arimak
eta barrua errai hustuko

Gaztela eta gaztelarrok
denek batera hartuta, denek
ez dute balio gure zelai
hezeen belartxoak beste

Ez txarto hartu galegoak
Gaztelako gaztelarrok,
joan arrosen pare doaz
etorri beltzen pare datoz

Galiziako gaita

Galizia, ez zaitzatela inoiz
izendatu espainiarra
Espainia ahaztua da zutaz
izan arren, ai!, horren zilarra

Laidoan jaioa iduri
da zutaz Espainia lotsa.
Umea ukatzen duen amak
non du amaren bihotza

Inork ez dizu eskua gozo
altxa zaitezen eskaintzen,
negarrez ari zarenean
malkoak ez inork xukatzen

Galizia, ez duzu aberririk
bakarrik zara ludian
urrun doazkizu alderrai
seme-alaba guztiak

Alfonbra berdean etzanik
zagoz ilunik, bakarra
esperantza eske itsasoari
Jainkoari eske esperantza

Horregatik, festa giroan
gaita entzunik deiadarrez
jakin ezazu ari dela
ez kantuz baizik negarrez

[haizeak daroatzan hodeiek]

Haizeak daroatzan hodeiek
noiz itzaldu noiz alaitu
egiten duten lez
zeruko eremu mugabakoa
horrela nik ditudan
ideia zoroek
forma ugariko irudiek
itxura bereziz dudamudako kolorez
noiz itzaldu noiz argitu
egiten dute
nire pentsamenduaren hondorik gabeko hondoa

[zer gertatzen zait inguruan?]

Zer gertatzen zait inguruan?
Zer gertatzen neronek ez dakidala?
Bizia eta ikusezina den
    zerbaiten beldur naiz.
Beldur naiz beti datorren eta nondik datorren
ez dakigun nahigabe etoiaren

[behin izan nuen iltze bat]

Behin izan nuen iltze bat
bihotzean iltzatua,
ez naiz oroitzen iltzea zen
urrez, burdinez edo maitez

Besterik ez dakit, min,
min ematen zidala,
Pasioko Madalena nintzen
gau eta egun negarrez

Dena ahal duzun Jauna,
eskatu nion Jainkoari,
emadazu indar, kolpe batean
gabetzeko halako iltzez

Jainkoak eman, eta atera,
baina... nork uste? Geroztik
ez dut oinazerik izan
minaren zantzurik ez

Besterik ez dakit, badudala
zer bat iltze zulo hartan,
baita... min harenganako
Jainkoa, ene! naizela minez!

Buztin hilkor honen arima
ulertuko duenik, Jauna, ba ote?

[gaur edo bihar]

Gaur edo bihar, nork esan lezake noiz?
baina agian berandu gabe
esnatzera etorriko zaizkit, eta bizi baten ordez
hildako bat aurkituko dute

Altxatuko dira nire inguruan
aiene minduak,
nahigabeak, nire semeen negarrak
negarrak nire zurtzenak

Eta ni berorik gabe, mugimendurik gabe, hotz,
mutu, guztiari soraio
halaxe egongo naiz heriotzak utzi bezala
bere hatsarekin izoztutakoan

Eta adio betirako, maite nuen guztia!
Zeinen utzegite ikaragarria!
Izan diren eta diren izango
sarkasmoen artean
ez dut ikusi biziak dituenik abailtzenago
hildako gorputz baten gelditasun apalak baino

[honezkero gorrotorik eta destainarik ez]

Honezkero gorrotorik, destainarik ez
honezkero aldakuntza beldurrik ez
Egarria besterik ez... egarria
akabatzen nauen ez dakit zer batena.
Bizi iturriok, non zaudete?
Arnasa! Arnasa nik behar dudana

Zer ikusten duzu osin ilun horretan?
Zer ikusten duzu isil eta dardaran?
Ez dut ikusten! Itsua lez nago begira
eguzkiaren argi gardenari.
Jausten dena altxatzen ez den hartan
naiz ni jausi beharrekoa

Isilik!

Eskua urduri eta bularra taupaka
lanbroak begiotan kondentsatuak
zentzumenetan zalantzazko mundu bat
eta hildurazko mundu bat erraietan,
borrokan sumatzen ditudala
bataila gogorrenean
hilduratzen duten desira hilezkorrak
eta hil egiten duten herrak
bustitzen dut luma neure odolean
zain hanpatua urratuz
eta idatzi, idatzi egiten dut, zertarako?
Itzul zaitezte nire arimaren hondora
ekaitz irudiok,
zoazte hildako akorduen artera!
Esku zalantzatiak idatzi ditzala paperean
berbak eta *berbak* eta *berbak!*
Ideiaren forma garbi eta orbangabea
non ote zen ugertu?

[itzal beltza]

Joana zarela uste dudanean,
itzaltzen nauzun itzal beltza,
neure burukoaren orpora
zatoz berriro nitaz barrezka

Eguzkian bertan zara ageri
alde egina uste zaitudanean
eta argi dagien izarra zara
eta zara jotzen duen haizea

Kanturik bada, zu zara kantari
negarrik bada, zu zara negartsu
eta zara zu errekaren marmarra
eta gaua zara zu eta goiza zara zu

Dena zara zu eta denean zagoz
nigan eta niretzat bizi zara
eta ez nauzu inoiz utziko
beti itzaltzen nauzun itzala

Aberrian arrotz

Huntzek eta lirioek tapizatu
kalostra zaharrean jesarri zen
isil eta triste
antzinako tenpluaren aurrean

Ikusi zuen bide zuzen baten goialdean
agertzen zela
kaburik gabeko hildakoen progua
batzuk gorputzez, besteak espirituz
monotono eta zuri dirdaika
belarretan zabaldu oihala iduri

Horrela ikusi zuen: bazihoazen, bazihoazen
beti ere infiniturantz
begi ilun eta hondoratuek
berarengana egindakoan
noizbait ezagutu izanaren
zantzurik ez seinalerik emateke

Eta batzuk maitaleak izan zituen inoiz
ahaideak gehienak, besteak adiskideak
haurtzaroko lagunak
mirabeak eta auzoak

Baina haren aurretik igarotzean
bideari jarraitu zioten hildakoek
beren ibili soraioan
infinituari buruz
gaua isil jausten zelarik
ezin tristeagoko lutoz
lagunik eta berotasunik gabe
kalostran jesarririk
sasi-suen dirdirari begira zegoen
aberrian arrotz zenaren inguruan

[zergatik,
Jainko beratza]

Zergatik, Jainko errukiorra
zergatik zaie krimen
berandutzen den heriotza bilatzea
bizitza hau zaigunean
neke eta etsimen?

Penek zamatuta,
zein bularrek eutsi?
Ez ote du bidaiari nekatuak
gorputzak behar duen
atsedena merezi?

Jasaten ez duenak
mendean duen oinazea,
zergatik, diotenez, haserretzen zara
makurtzen badu burua
hilobien artean?

Infernua munduan
mugabako infernua
arimaren gutizia den hondorik gabeko
hilobitik harantzago
begiak ezin neurtua

Hau egia bada
hau egiaren latza!
Edo dauzkagun ugarietatik uzten diguzu
infernu bakarra
edo urrikal bekizu tristea, Jainko beratza!

Bakarrik!

Egunak argiz
goizak bakez
haren tristura
zurtza bezain beltz

Egunsentiz urten
etxera arratsez...
urten edo itzuli
inori ardurarik ez

Hareatza aldera
egun batez hartu...
Haren begira inor ez,
zertan etxeratu?

Hiru egunen buruan
itsasoaren lana:
belea egoten den hartan
dago lur emana

Akordu tristeak

Arratsalde batez, Gaztelako hartan
dirdiran zela eguzkia
leku haietan beti dirdiratzen duen eran

argi, erregarri eta harro,
barka nazala, ez baita huraxe
jendea erretzeko modua

eta halako indarrez ihartzeko
errubako landare gaixoa
iturria, erreka egarrituak

Arratsalde batez, ai nolako tristurak
jo ninduen etoi
halako zakardadean!

Non dut ordea bazter jo
neure artean, zerura begira
lurrera ez begiratzearren

Zerua, hori bai
nola-halako urdina baitzen
hemen dugunaren antzekoa

Lurra berriz... ene Jainkoa!
Jauna, ba ote liteke
hura zuk egina izatea?

Baina, zertarako harritu honela
zuk egiten dituzun gauzak
ez badituzu inoiz egiten oker?

Halako ordoki tristeak egin zenituen
baina zuk, Jainko errukitsua,
gaztelarrentzat zenituen egin bakarrik

Ai, usoa bere habian
untxia bere zuloan
arima bere gozoan

Horretan ari nintzen
arratsalde hartan
malenkonia beltzeko akorduan

Eta bitartean, ikusten nituen
eguzkiak zuritzen zuen lurraren
ordoki zabal berdina

pinudi luze nekatuaren
orban beltz azkenbakoa
herriaren kolore errea

eta lurraren eta firmamentuaren artean
haizeak harrotzen zuen
hauts trinkoa ziren hodeiak

Basamortuaren eredu jatorra
txingar hats berekoa
erretzeko amorru berdina!

Mandoak urruntzen
zezenak hurreratzen
ardia eri marraka

Eta erretako arantzan
suzko eguzkian urtua
pausatu zen txoriñoa

Ene Jainkoa!, nolako arrangura astuna!
Tristurak ninduen zamatzen
bizirik lurperatu banindute bezala

Lur ederraren mina,
senda itzazu zure hezetasunaz
negarretan den arimaren penak

Laino gaiztotan bildutako
erreka egarritu honek
kalentura ematen du, hotza ematen du

Bat-batean kantua entzun
itolarrian jartzeraino
hunkitu ninduen kantua

Galiziakoa zen kantua
gure *alalá* horrek eragin
nire bihotzari taupaka

Pilpira berezian
ezti maitasun onean bezala
anker atsekabean bezala!

Hautsez eta izerdiz estaliak
igitaia bizkarrean lasterka
eremu mortu haietan barrena

segalari talde bat...
Eta haiek ziren, haiek izan
kantatzaile sorginak!

Adio, erretako pinudiak!
Adio, suak kiskali lurrak
eta soildu muinoak!

Bildu nituen begiak eta orduan ikusi...
iturriak ikusi, larreak eta ibarrak
nire orpora etzanak

Baina berriro zabaldu nituenean
bakardadez hil behar baten
eman nion negarrari

Eta ez nuen negarra atertu
behin ere, Gaztelatik
eroan behar izan ninduten arte

Eroan ninduten, bertan
ez nintzaten lurperatu behar

[ezkontzea
ona dela dinozu]

Ezkontzea ona dela dinozu
eta santua, halan izango da
baina deabruak berak tentatu arren
San Antonio ez zen ezkondu

Penitentziak albait gehien
zilizioak zenbat gura
baina ezein santuk, nire ustez
ez zuen eroan nahi izan
ezkonduen gurutze astuna

Hainbeste laudatzen
eta idazkiak leiduten dizkiezun
aita santuen artean
inork ez zuen izan gura
horrelako lupetzan lohitu
bere oin bedeinkatuak

Egokira edo iruntzira
ezkontzea urka-bilurra da
infernuko tentazinoa.
Baina egingo naiz ezkondu...
Izan be, neguan ez izatea hankak nork berotu...!

[haur bat dardaraz arkupe hezean...]

Haur bat dardaraz arkupe hezean...
hotzak eta goseak
Aingeru kutsua dauka bere aurpegiak
ederra oraindik, baina zimel eta argibakoa

Narras eta oinutsik, harrietan
pausatu ditu zalantzan
neguko izotzak
hondatutako oin errukarriak,
badirudi dizkiola urratzen
labanaren aho zorrotzak

Lastarterik edo jaberik gabeko zakur,
denek erdeinatua,
eskailera gogorreko txokoan da
ikaraz kukutu
eta ihartutakoan makurtu den lirioa bezala
errubakoak ere makurtu du, goseak jota
urrezko burua
eta aurpegia harrietan duela datza

Eta lo dagoen bitartean
oinazearen eta miseriaren irudi triste
badoaz badatoz *Jaungoikoa adoratzera!*
fariseoak! lurreko handiak.
Errubakoaren zurtza ikusita
aseezina da aberatsen gose zekena

Itotasunez estutzen zait bularra
Jauna! Zeruko Jainkoa!
Zergatik daude halako arima beltz eta gogorrak?
Zergatik daude zurtzak munduan, Jainko onbera?

Ez dago alferrik itxia
misterio handien liburua...
Igarotzen dira loria, ahala eta poza...
Dena da igarotzen lurrean. Hala balitz!

Habanarantz!

I

Saldu dituzte behiak
saldu dituzte idiak
saldarako lapikoa
oheko maindireak

Saldu dute gurdia
saldu dute alorra
bakarrik utzi diote
soinean duen atorra

Maria, gaztea naiz
ez dut nahi eskera
bizimodu bila noa
hango mundu aldera

Galizia pobre dago
banoa Habanara...
Adio, adio bihotzeko
ene maite laztana!

II

Inork begiratzen ez dienean
aurpegi ilun dira ageri
ibar-mendietan noraezean dabiltzan
itzal galduak iduri

Bata, muinoaren goialdean
jesarri da pentsakor
bestea, haritzaren ondoan geldirik
begirada infinitura so

Besteren bat, iturrian makurtua
isurian datorren uraren marmarra
entzuten ari da erne, ahapetik
tristeeneko hasperenak eginez

Aberria utzi behar dute...!
Bortxazko sakrifizio handia.
Miseria gorria dute inguruan,
aurrez aurre amildegia...!

III

Itsasoa harro harkaitzetan joka
eta baforaren kostaduetan
apurtzen dira Kantauri gaziaren
uhin haserreak

Kaioak txilioka
han urrun...! hain urrun...!
atsedenera eta maitasunera gomitatzen duen
bazter bare eta bakartian

Eguzkitan dirdaika dator
aurreraka eta sigi-sagan gizaki ilara trinkoa,
baina Parroteko harresi zaharraren
bihurguneak astiro jarraituz

Bihotza zimurtu egiten da ikaraz
sumatzen dira algarak, sumatzen biraoak
eta madarikazioak batu zaizkio hasperenari.
Gizon horiek, nora doaz?

Hilabete barru, zoazte Habanako hilerri handira
edo hango oihanetara, horien galde.
Lo daude sekulako ahaztuak...!
Koitaduak hazi zintuzteten amak
eta maitasunez esperoan dauzkazuenak, koitaduak!

IV

Eutsi, lagunok
gizakiona da lur osoa,
eta jakinezak du jango
berea baino ikusi ez duena.
Eutsi! Egin duenak alde, alde du Jainkoa!
Eta orain Galiziatik urrun bagoaz
itzulitakoan ikusiko duzue
haritzak nola diren hazten!
Bihar da egun handia lagunok, itsasora!
Bihar, alde dugu Jainkoa!

Gogoan arrangura
aurpegian poza
eta esperantzaren kanpai doinua
urrun, agoniakoa joka!

V

Hark alde eta honek alde
eta denek, denek alde
Galizia, landuko zaituzten
gizonik gabe zaude

Badituzu, aldiz, zurtzak
eta bakartasun lurrak
eta haurrik ez duten amak
eta aitarik ez duten haurrak

sufritzen dituzten bihotzak
eta absentzia luze astunak
inork kontsolatuko ez dituen
hil eta bizi alargunak

Lur gurea!

Gure herri on honetako
gaztainondoaren abaro gustagarrian
bizia eztitzen duten
hariztegi hostotsu haien azpian
ezin konta ahala urte
dituen aitaren etxeko pikondopean
zer kontu atsegin
zer maite hizketak esan ziren han
zenbat algara entzun
apiril amultsuaren arrats leunetan!
Eta hala berean,
nolako adio tristeak entzun ohi diren!

Etxea daukanak bizi erdia omen dauka.
Oihaltxo batzuk gorputza estaltzeko
lau enbor sutan gure laratzean
eta ekin lanari!
Adorea, adorea! eta egon hor
dohakabea
herentzian hartu zenituen eta inork
botako ez zaituen

pareta triste eta biluzi batzuen artean.
Inork ez?... Miseriak bai.

Labean ogirik ez, laratzean ogirik ez
kilkerrak kanturik ez han,
eta higatzen duen penarekin ez bada
pobrea bakarrik da bere oinazean.
Janik ez, berorik ez, dardaran
haize meheak
txistu egiten baitu heze harrien artean
eta ateek kirrinka.
Zer egin lezake, Jauna, inguruan
babesik ez badu?
Jaio zen lurra eta azken hatsa
emateko asmoa duen etxea utzi?
Ez, ez! negua joan da eta bidean dugu
udaberri ederra.
Zuhaitzak mentutan hasiak dira bere ortuan
Apirila hemen da!
Eta erauntsika ari duen arren ordu tristeetan,
besteetan eguzkiak irri,
lurra lan liteke, pobrearen goseak
ihes egingo du!
Ai, Galizia ederra!, zugan sortuak

zugan nahi du hil.

O, mahats albarinako parra neurea
gerizpea ematen didazu!
O, zu, loretxo zuriko intsusa
gaitz guztiak dituzu sendatzen!
O, zu, azkenik, neure ortu maitea
eta neure arbi lurrak,
ez zaituztet utziko, urrun joango dira
itolarri beltzok!
Heldu den udak fruituz beteko zaituzte
jateko daude guztiak
txoriñoek garauna dute alorretan
aterpea hostotzan.
Gauak bare dira eta jabal
ilargia beti argi,
teila artetik sartzen dira printzak
eta nire oheraino datoz,
eta horrela lokartzen naiz pobreei argia
ematen dien lanpararen argitan:
ederra lanpara, ederra sekulako
hilkor garenon kontsolagarria

Ba, bai! bizitzeko eta gozatzeko egin zuen

Jainkoak lur sorgin hau
paradisu txiki, Adamek galdu
zuenaren arau.
Argi ematen digun eguzki atsegina
itsasoko brisa hauek
eguraldi epel hau, alor hauek
parerik gabekoak
guk daukagun hizkuntza txeratsu hau
horren berbeta eztikoa,
bihotzeraino doazen samurtasunak baino
esaten ez dakiena
lur hau, ez da dudarik... Jainkoak egina da
maitatzeko eta maitatua izateko.
Ai, Galizia, lotan aingeru ametsak egiten dituen hori
eta negarra esnatutakoan,
penak arintzen bai baina gaitza
sendatzen ez duen malkoan!

Zure haurrek maite zaituzte... nahigabetu egiten
ditu
zure lurra uzteak!
Kontsuelorik gabe egiten dute marru beste lurretara
baldin badoaz bizitzera.
Han dute gorputza, erresuma urrunetan

eta espiritua beti hemen
sorterriko akorduetan besterik ezin dute bizi
eta elkar animatu.
Eta esperantzan, esperantza sutsuan
Galiziara itzultzeko...
Eta nola ez zaituzte ba horrela maitatuko,
ama santu maitea
nola ez dira hilko eztiaren eztia eta loria
eta poza eta paradisua
hemen lurrezko munduan ematen dien
lekutik urrun!

Zeinen eder egin zintuen Jainkoak,
zeinen zoritxarreko apain!
Nolako sosegu baratz eta malenkoniatsua
hartzen dudan zuri begira!
Zergatik, zergatik loreen artean doaz
josiak arantzak
sekulako berdetasunez burua hartzen dizun
koroa horretan?
O, o, Galizia, har ezazu harpa ozena
lehenbailehen
menderik mende ahazturik lo dagoen
adar sikutik!

Gora dezatela ahotsa zure seme koblakariek
harietan eta konpasetan
eta lauda zaitzatela mundu osoan
harro eta harmonian

Zergatik?

Entzun, txinelak
auzoan zehar dabiltza
baina, zelan ordaindu, zelan, ailegatzen ez bada
errenta pagatzeko?

Dena bahituko dute, jende horiek
ez dute kontzientziarik, ez arimarik be.
Narrugorrian geratuko gara,
neure erraietako haurrok!

Hona orduko, adur txarrak
hilko ahal zaituzte!
Tristeak ditu pilpirak
pobrearen bihotzak, zuek entzunda!

Maria, ez balego
saritzen eta zigortzen duen Jainko bat
neuk hilko nituzke
lukiak oiloa hiltzen duen lez

Ixo! Ez egin biraorik!
negartegi bat da bizitza hau...!
Baina, zergatik batzuek hainbeste sufritu behar
bestetzuek bizia bigunkerian emoten dutela?

[bakardadez hiltzen ari zen]

Bakardadez hiltzen ari zen
hirian, hasperenka herria gogoan
Itzaldu egiten zuten etxeek beren hormekin
eta itzaldu egiten zuten dorreek eta elizek

Lauzadun kaleak iduritzen zitzaizkion
berdebako eta bizibako,
hilobi tristeetatik irtenda
hildakoak zebiltzan hilerria

Jatena egiten zitzaion
gatzbako irina, zakurbelarra lakoa
eta irensten zuen apurrak
elikatu ordez, hil egiten zuen

Noiz edo noiz heltzen zitzaizkion
ez dakit benaz edo liluraz
urruneko pinudi eta ibarretako
lurrin menditarrak

Goialde batean jesartzen zen horrelakoetan
begira egoten zen zabaldegietara
eta, ito egiten zuten hasperenetan
marrantaz, oihu egiten zuen zotinka: Ni banoa!

Eta bazihoan arin eta erremediorik gabe
bazihoan higatzen zuen tristura hilgarriarekin!
Bazihoan Errose koitadua, bai
baina... beste bizira!

Norberak justizi

Han, hirian, prestuen hotsa zutenek
lapurtu zidaten nire zuritasun garbia
satsa jaurti nire inoizko galen gainean
pildetan utzi nire jantziak

Harririk ez zuten laga ni bizitako etxean
laratzik gabe, aterperik gabe, alorretan biziz
landazabaletan egin nuen lo erbiekin izarpean.
Nik hainbeste maite nituen haurrak... nire
aingeruak!
hil, hil, gosearen goseak!

Ondra zidaten galdu, bizitza maskaldu
otez eta laharrez egin behar etzango
eta bitartean odol madarikatuko lukiak
arrosazko ohetan lasai ederrean lo

Salba nazazue, epaile jaunok! nik oihu... Erokeria!
Justizia saldua, barre zidaten egin.
Jainko ona, laguntza! nik oihu, oihu... Goi hartatik
Jainko onak entzun ezin

Orduan jauzi ni amorruz igitaia hartzeko
min hartutako edo zauritutako otso eme
abiatu nintzen pausoz pauso (belarrek ere igartzen
ez),
bere lagunekin ohe leunean zegoen piztia lo
eta ilargia egin zen gorde

Astiro begiratu nien, nire esku gogortuekin
bizia kendu nien kolpe batean, kolpe bakarrean!
Eta jesarri egin nintzen, pozik, egunak noiz argituko
biktimen ondoan bakean

Eta orduan... justizi egin zen orduan:
nik haiengan, eta legea sarraskitu zituen eskuan

[zula arin, zula]

Zula arin, zula
pentsamendu handi horrek,
zula zulo sakon bat non ehortzi
joanaren oroipena:
hildakoak lurpera!
Zula arin, zula!
Eta eman lauzatzat ahanztura beltza
eta hilerritzat eman ezereza